

38» Iñaki Beobide Jarrai antzerki taldeko zuzendari
ohiari emango dio EHAZEK Antzerkizale saria

40»

'Amerikanuak' filma Bilbo, Donostia, Madril eta
Bartzelonako zinema aretoetan ikusgai gaurtik

Zaharra naiz, eta zer?

Arantxa Urretabizkaia
'3 Mariak' nobela
kaleratu du, adineko
hiru emakume
protagonista izanik

Gorka Erostarbe Donostia

Eguneroko denboraren knudea-ketak bezalaxe, bizitzaren denborarenak ere arduratzen du Arantxa Urretabizkaia (Hondarribia, Gipuzkoa, 1947). Egunerokoan beste lehenetasun batzuk izan dituelako —dela kazetari-tza lanbidea, dela maite duen jendea zaintzea, dela zaletasunen bat edo beste izatea— behar izan ditu ia zortzi urte *3 Mariak* (Erein) nobela idazteko: «Literatura ez da ogibidea niretzako, eta tarteke-tarteketa joan naiz idazten».

Eta bizitzaren denborarenak kezkatzen duelako idatzi du, hain zuzen ere, hiru emakume zaharren inguruko istorioa kontatzen duen nobela. *Zahar* hitza, bere horretan erabili du gainera nobelan, eta halaxe darabilte protagonistek beraiek ere. «Zaharrak dira, eta hitz hori erabiltzen dute beraien artean, leurgaririk gabe, ez *hirugarren aldin* eta ez *ezer*».

Eskolako lagunak ziren hiru Mariak. Oso lagunak. Elkarri egindako promesa bat egia bihurtzen hasiko dira eleberriko istorioan. Gerrak eta bizitzak elkarrengandik urrundu zituzten hiru lagunak. Txuri, Gorri eta Handi emakume zaharrak dira, baina ez horregatik bizitzeko ilusio gutxiago duten emakumeak. Etorbizunari begiratzen

diote ilusioz beteta... Euskal Herriko kostaldeko herri batean kokatu du istorioa idazleak, izendatzen ez den herri batean, eta protagonistak, adinekoak izanik ere, ez ditu iraganera begira jarri: «Badiardi zahar-tzen garenean gaztaroari begira geratzea baino ez zaigula gertatzen. Estatistikei begira jarritz gero, pertsona bati erretiroa hartu eta gero ia beste hogei urte gertatzen zaizkio bizitzeko. Azken hogei urte horiek irau urteak besterik ez dira. Nik ez nituen nahi jarri emakume horiek irauten bakarrik».

Orain guri dagokigu errebindikatzea zahar izan litekeela modu askotan»

«Zahartzarora iristean ez dago beste aldaketarik, beraz, izan lezake liberazio kutsu bat»
ARANTXA URRETABIZKAIA
idazlea

Arantxa Urretabizkaia 1947an jaioakoa da. 60 urte pasatxo ditu, beraz. Liburuko protagonistak baina gazteagoa da, baina, hala ere, autobiografikotzat du istorioa. «Nire eleberririk autobiografikoa da. Emakume hauek zahartzararen aurrean duten jarrera delako niri gустatuko litzaidekeena izatea adin horretan. Ez da autobiografikoa hau bizi izan dudalako, baizik eta hau bizi nahi dudalako».

Berak zahartzaroa nola bizi

nahi lukeen idatzi du liburuan, baina ez luke horregatik dogmatizatu nahi zahartzarook nola-koa izan behar lukeen: «Gauza ebidenteak da hau nobela bat dela. Ez da soziologia liburu bat. Ez diot zaharrak horrelakoak direnik, ezta horrelakoak izan behar luketenik ere. Ondo dakit ez naitzela etorri mundu honetara lezioak ematera».

Egin duena, irakurlearen esku

Istorioren sinesgarritasunean jartzen du Urretabizkaia nobelaren gakoa: «Hau fikzioa da. Sinesgarria baldin bada, lortu dut nahi nuen. Sinesgarria ez bada gertatzen, kale egin dut. Egin nahi izan dudana badakit, egin dudana irakurleak esango du».

Liburuko hiru emakume protagonistak ez dira ghetto batean bizi, idazlearen hitzetan: «Gizartean txertaturik bizi dira, ez familia tradizional batean, baina gizartean txertaturik, eta protesta egiten dute gazteek haur bezala tratatzen dituzelako». Gaztetasunaren inguruan dagoen gehiegizko gotesmenak ez du eroso sentiarazten Urretabizkaia: «Gure belaunaldiak bizkaia: «Gure belaunaldiak asmatu zuen gaztaroa dela bizitzaren gailurra, eta orain guri dagokigu errebindikatzea zahar izan litekeela modu askotan. Amorrarazi egiten nau zer obsesio dugin garana baino itxura gazteagoa izateko. Bizitzan aldeketa garaiak dira zailak, eta zahartzarora iritsi ostean ez dago beste aldaketarik. Libertzio kutsu bat ere izan lezake zahartzeak hortaz».

Urretabizkaia gaiza bat dauka oso argi: «Nortasun agi-



Arantxa Urretabizkaia, atzo Donostian. JUAN CARLOS RUIZ / ARGAZKI PRESS

riak ez du gobernatuko nire bizitzaz». Berak markatu nahi luke bere erritmoa, literatur esparruan markatu duen modu beretan. Hamabi urte igaro dira *Koaderno gorria* aurreko eleberria argitaratu zuenetik. *3 Mariak* idazten egon den zortzi urteetan atera izan dira zahartzaroa gaitzat izan duten beste liburu batzuk, eta ingurukoek adarra jotzen ziotea dio idazleak: «Doris Lessingek bi emakume zaharrei buruzkoa plazaratu zuen, eta Uxue Alberdiren *Aulki jokoa*-n ere emakume zaharrak dira protagonistak. Beti atzetik ibiliko naizela esaten zidaten gertukoek. Baina azkenean oso istorio desberdinak dira».

Hatortxu Rock jaia bi egunez egingo da

Berri Txarrak, Kerobia, Zea Mays eta Gatibu ariko dira, bestea beste, urtarilaren 7an eta 8an Zizur Nagusian

G.E.

Aldaketak dakartza Hatortxu Rockjalaldaren hurrengoaldia. Bost urtez Berriobetn (Nafarroa) egin eta gero, iaz Atarrabian egin zuten, eta aurten, berri, Zizur Nagusian egingo dute, baita men arazoak izan baitituzte antolatzaileek lehengo leku berean

egiteko. Euskal errepresalietan eta haien senideen aldeko jaialdia bi egunez ospatuko da, urtarilaren 7an eta 8an.

Lehen egunean, Kerobia eta Zea Mays taldeek euren azken diskoak aurkeztuko dituzte Zizur Nagusiko Ardoi-Arrobi zerbitzugunean jarriko diren bi karpatan. Bigarren egunean, talde hauek ariko dira: Zik Rap, Vomito, Groversors, Gatibu, Kaotiko, Berri Txarrak, Vendetta eta Amañur.

Sarterak abenduaren 1etik aurrera egongo dira salgai, baina egun horren aurretik *wuu, hatortxu.rock.org* webgunean lortu ahal izango dira.

FINALAURREA

azaroaren 21ean, DURANGOKO LANDAKO GUNEAN 17.30ean

BERRIETAKO

OHINIZA ENBERRA
ETXANDI LERIOE
JONE URUA
IBON AJURRIA
GORKA LIZKANO
XABAT GALETTEBETIA
MAITE BERNIOZABAI

LAGUNTZAIA berria